

## KANTUAK NOLA EGIN (AURRERATUA)

### Irakaslea

THIERRY BISCARY, abeslaria eta ekoizlea. Kalakan taldean partaide izandakoa, 2002an Ipar Euskal Herriko eskoletan hasi zen musika ikastaldiak ematen Kristof Hiriart eta Lagunarte konpainiaren zuzendaritzapean. Lan horri esker ohartzen da transmisioaren garrantziaz. Besteek ikasi diotena erakasten hasten da: kantua, txalaparta, edo joaldunen teknikak. Orduz geroz, musika proiektuetan parte hartzen duelarik, mami artistikoari eta funtsezko zentzuari kasu berezi bat ematen dizkio. Unibertso ezberdin bezain aberasgarri horietan lan eginez, beti oinarrizko abiapuntura itzuliko da: musika herrikoa eta bereziki ahots hutsezko kantua, soila edo polifonikoa. 2018an bere lehen lana *Manez eta Kobreak* plazaratu ondoren, 2020an, bere bigarren albuma, *Muda*, argitaratu zuen. Bestalde musika eta kantu tailerrak Gipuzkoan eskaintzen ditu. Azkenik, *Kalapita* produkzioak enpresarekin, ekoizpen lanak egiten ditu Euskal Herriko beste artista batzuentzat.

### Deskribapena eta helburuak

- Abesti bat nola sortzen den sakontzea (letrak, egitura, estiloa, doinuak, erritmoak)
- Aurretik ikasitako letrak sortzeko teknika batzuk praktikan jartzea. Letrak idaztea. Ikasgelan sortutako bertsoak ere erabiliko dira.
- Doinuak sortzeko ikasitako tekniketan sakontzea. Melodiak konposatzen saiatu, ezagunak diren doinuak ere erabiliko ditugun arren.

### Nori zuzendua

Kantariari zein aurreko ikastaroan parte hartu dutenei zuzendua

### Data-ordutegia

X13- I 12  
Asteazkena 19:00-21:00

### Hizkuntza

Euskara

### Oharrak

- Ikasle guztiek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte COVID-19 gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko, bai eta arrisku horiekiko esposizioa bera saihesteko ere. Agintariek eta Donostia Kulturak ezarritako segurtasun eta higiene neurriak jarraitu beharko dira.
- Matrikularen zenbatekoan ez da ikastaroko materiala sartzen, eta ikastaroa egin bitartean behar izan daitezkeen bestelako materialak ikastaroko ikasleek emango dituzte. Ikastaro batzuetan, Donostia Kulturak hasierako oinarrizko materiala jarri ahal izango du.